

PROPOSAMENAK

HORRETARAKO HERRIETAN AURRERA
ERAMATEKO PROPOSAMENAK DITUGU:

-Gizonek erasotu eta feministok antolatu behar ditugu gure etxeratze kolektiboak? Izan daitezela gizonak etxera kontrolpean doazenak.

-Kontzertuetako Lehen Ierroetan ez ditugu orangutanak nahi!

-Matxiruloen aurkako mezu originalak erabiltzea: pankartetan, karteletan.. Jakin dezatela espazio horretan ez direla ongi etorriak.

-Erasoei erantzun bezala, jai espazioa ez-misto izateko aukerak baloratu daitezke.

-Zein gehiago izan daitezke? Herri eta auzoetan izan originalak! Ez izan beldurrik borroka molde tradizionalak hausteko! Ez izan zuzenak, izan desobediente, apurtzaile, mamarratza. Ez zaitzatela zorrotzat hartu TIA, arrazoia dugu!

**BERME HAUEK BETETA, JAI EREDU
FEMINISTAREN IMPLEMENTAZIOAN AURRERA
URRATSAK EMAN AHALKO GENITUZKE!**

OHARRA

BELDURRAREN DISKURTSOA

EZ BADA KIZU EDATEN,
EZ EDAN

Gainera, azpimarratzekoa da azken urteetan neska* gazteoi transmititzen ari zaigun beldurraren mezua. Kide asko alerta egoeran egotera darama horrek. Argi utzi nahi dugu ez dugula babestuak izateko beharrik, geure artean antolatu eta erantzuteko gaitasuna dugu. Beraz, honi aurre egiteko forma bakarra gizonek erasotzeari uztea, da!

#askidaostia

AUTODEFENTSA FEMINISTAN

PAUSU BAT AURRERA

#askidaostia

EUSKAL HERRIKO NESKA* GAZTEAK

1.IDEIA

GIZONEK ARDURAK HARTU BEHAR DITUZUE

ZER ESAN NAHI DUGU HONEKIN?

Feministok ibilbide luzea dugu jai eremuan protokoloak sortzen, erasoei erantzunak ematen, etab. Jaien antolakuntzan, ikusezinak diren paperak bete izan ditugu, eta honek ezin du gutxi batzuen lana izaten jarraitu. Gizonek ardurak hartu behar dituzue orain. Horregatik gure proposamenak bi noranzkotan jotzen du.



2.IDEIA

ALIANZA FEMINISTAK

ZERTARAKO?

Alde batetik, neska+ gazteen artean aliantzak sortzea beharrezkoa da, bai jaietan zein hauen aurrelanketa eta antolaketan. Espazioak berhartzeko, ahalduz eta boteretxe espazioak sortzeaz ari gara. Beharrezkoak ditugu espazio ez-mistoak, lidergotza feminista izatea suposatzen baitute. Espazio mistoetarako tresnak sortu behar ditugu aliantza feministetan sakontzen jarraitzeko, espazio formal zein ez formalean.

#askidaostia



3.IDEIA

GIZONEK BOTEREA UTZI

ZER ESAN NAHI DUGU HONEKIN?

Boterea uzteaz ari garenean, besteak beste, espazioak uzteaz ari gara. Atzera pausua ematea beharrezkoa da, orain arte egon zireten espazio horiek beste batzuek okupatu ahal izateko. Espazio formaleko erabakiguneak zein txosnaguneetan lehen lerroa ez okupatzeari utzi behar diozue, etab.

#askidaostia

